# desfibriladoreen inguruko ikastaroa antolatu du DYAk

Uztarria.eus | Besterik | Artikulua
2014-05-21 11:26

Ekainaren 12an eta 13an izango da ikastaroa, Azpeitiko DYAko ordezkaritzan. 18:30etatik 21:00etara izango dira saioak, eta interesa duen edonork hartu dezake parte. Ez da beharrezkoa aurretiazko osasun ezagutzarik izatea.




Ikastaroaren kartela. Ikusi haundiago | Argazki originala

Ekainaren 12an eta 13an, bihotz-biriken suspertzearen eta desfibriladoreen inguruko inguruko ikastaro teoriko-praktikoa izango da, DYAk antolatuta. Ikastaroaren helburuak dira bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzea, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak egitea eta DEA (Kanpoko desfibriladore automatikoak) erabiltzen ikastea. Ikastaroko ezaguerak "errazak, eskuragarriak eta erabilgarritasun handikoak" direla azpimarratu dute DYAkoek.

Bi saioak 18:30etatik 21:00etara izango dira DYAk Azpeitian duen eraikinean (Urola kalea), eta

interesa duen edonork hartu dezake parte; bereziki, lanean pertsona ugari dagoen guneetan aritzen direnentzat dago zuzenduta. DYAk emango du ikastarorako beharrezko materiala, eta ikasleek ez dute aurretiazko osasun ezagutzarik izan beharrik. Parte hartzaile bakoitzak 90 euro ordaindu beharko du ikastaroa egiteko, eta taldeak mugatuak izango dira.

Izena DYAren webgunean edo 943 46 46 22 telefono zenbakira deituta eman daiteke.

### Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu »» Alta eman edo pasahitza berreskuratu

Sign in with twitter Facebook ikonoa

## Besterik

- Etxe bateko teilatutik habe zatia erori da Erdikalera
- Angel Rekalderen hitzaldia atzeratu egin dute
- Gorka Azkunek jaso du Caf-Elhuyar Dibulgazio-artikulu onenaren saria
- Sutea izan da goizean zezen-plaza ondoko etxebizitza batean
- Errioxako ganadutegi batera irteera
- Bihotz-biriken suspertzeaz eta desfibrilagailuen erabileraz ikastaroa emango du DYAk
- Jakoba Errekondorekin solasean
- Hazien ugalketari buruzko eskuliburua aurkeztu dute
- 'Baratzaren udaberria' jardunaldiak egingo dituzte ostiralean eta zapatuan herrian
- Telesail berri baterako figuranteak behar dituzte

**uztarria.eus:** Uztarria Komunikazio Taldea
Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia
Harremanetarako: kontaktu formularioa, **e-posta:** uztarria[a bildua]uztarria.com **telefonoa:** 943150358
Estatistikak
**Babesleak**: Azpeitiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza (Kultura) **Babesleak**

azpeitia udala Gipuzkoa BERRIA EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Uztarriak ez du bere gain hartzen webgunean adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik**

Gure lizentzia: Creative Commons Aitortu Partekatu